BOE

ZENTSUAN IZENA EMATEKO GIDA



Sarbide baldintza berriak jende gehiagorentzat

Eman izena zentsuan

etxebizitza.nafarroa.eus

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

NAVARRA : NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

ZENTSUA ETA MODALITATEAK

ZER DA ZENTSUA?

Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua **erregistro bakarra** da, eta Nafarroan etxebizitza babestu bat eskuratu nahi baduzu, bertan izena eman behar duzu.

NORK EMAN DEZAKE IZENA?

Izena eman dezakezu, baldin eta:

- [X] Adinez nagusia bazara
- [X] Nafarroako edozein udalerritan erroldatuta bazaude
- [X] Egoitza-baimena baduzu, beharrezkoa denean

ZERTAN INSKRIBA ZAITEZKE?

Zure diru-sarreren arabera, gehien interesatzen zaizkizun aukerak aukera ditzakezu:

SARTZEKO MODALITATEA


BOE edo PTE erostea
- → Jabetza osoan: etxebizitzaren eta eraikita dagoen lurzoruaren jabea zara
- → Azalera-eskubidean: etxebizitzaren jabea zara denbora jakin batez, baina ez lurzoruaren jabea

BOE alokairua
- → Alokairua
- → Alokairu eskuragarria

LOGELA-KOPURUA

HERRIAK

GARRANTZITSUA
Aukera hori garrantzitsua da, zure diru-sarreren araberako aukera guztiak hauta ditzakezu, baina kontuan izan gero soilik parte hartu ahal izango duzula zure zentsua-inskripzioan adierazitako irizpideekin bat datozen sustapenetan.



NIRE DIRU-SARRERAK



ZER DIRU-SARRERA IZAN BEHAR DITUZU?

Diru-sarrerak zure errenta-aitorpenaren bidez egiaztatuko dira.

BOE ESKURATZEA

	GUTXIENEKO DIRU-SARRERAK	GEHIENEKO DIRU-SARRERAK
Alokairua	≥ 5.000€	≤ 2,5 aldiz SARA
Alokairua eskuragarria	> 2,5 aldiz SARA	< 4,5 aldiz SARA
Erosketa	≥ 19.000€	< 4,5 aldiz SARA

PTE ESKURATZEA

	GUTXIENEKO DIRU-SARRERAK	GEHIENEKO DIRU-SARRERAK
Erosketa	≥ 24.000€	< 6,5 aldiz SARA

NOLA KALKULATZEN DIRA DIRU-SARRERAK?

Diru-sarrerak zerga-oinarriaren zati orokorraren eta salbuetsitako errenten arabera kalkulatzen dira zure azken errenta-aitorpeneko 507 eta 529 laukiak.

SARA indizea familiaren diru-sarrera haztatuak neurtzeko erabiltzen den adierazlea da, eta urtero eguneratzen da.

ZER GERTATZEN DA ETXEBIZITZA BADAUKAZU?

Zentsuan izena ematen baduzu, zuk eta zure familia-unitateko pertsonek baldintza hauek bete behar dituzue:

- → Ez duzu etxebizitzarik jabetzan, ezta erabiltzeko edo gozatzeko eskubiderik ere, etxebizitza hori desegokitzat jotzen denean izan ezik.
- → Ez duzu etxebizitza bat edo haren gaineko eskubiderik saldu edo besterendu azken 5 urteetan, besterentze horrek 100.000 € baino diru-sarrera murritzagoak ekarri dituenean izan ezik.

IZENA EMAN NAHI DUT

NOLA EMAN DEZAKEZU IZENA?

ON LINE Erosteko nahitaezkoa. Nafarroako Gobernuaren Izapideen Katalogoko **Zentsua fitxaren** bidez.
AURREZ AURRE Aurrez aurre joateko, aldez aurretik hitzordua eskatu behar da. Hitzordua eskatzeko bide hauek daude:
- → Online **Nasuvinsaren web gunean** (Iruñeko eta Tuterako bulegoetarako bakarrik)
- → **848 42 00 42** telefonora deituta

NORA JOAN ZAITEZKE AURRETIAZKO HITZORDUAREKIN?

Iruñea	San Jorge etorbidea 8, behea
Tutera	Capuchinos kalea, 6-1
Doneztebe	Merkatarien kalea 6, behea
Zangoza	Kale Nagusia 8, behea
Agoitz	Trinkete kalea 13, behea

ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DUZU?

Zentsuan behar bezala izena emateko, gomendagarria da **beharrezko dokumentazioa*** prest izatea, bai izapidea online egin behar baduzu, bai aurrez aurreko hitzordu batera joaten bazara. Izena emateko unean dokumentazioa edukitzeak datuak arinago osatzen eta ondorengo akatsak edo gorabeherak saihesten laguntzen du.

Dokumentazioa nahitaez justifikatu beharko da etxebizitza bat esleitzen den unean.

GARRANTZITSUA
Inskripzio bateratua egin behar baduzue eta pertsonetako batek bakarrik joan behar badu, beste pertsonak sinatutako baimena aurkeztu beharko du, Bertan, berariaz adierazi beharko da bere izenean jarduteko baimena ematen duela Zentsuko izapideak egiteko. Baimen hori gabe ezin izango da inskripzio bateratua izapidetu.

JADA IZENA EMAN DUZU!

ZER IZAN BEHAR DUZU KONTUAN ORAIN?

Zentsuan egin duzun inskripzioak 2 urteko iraupena du.

Gogoratu zure datuak eguneratuta izan behar dituzula nahitaez. Denbora-tarte horretan, zure inskripzioko daturen bat aldatu edo eguneratuz gero, indarraldia automatikoki berrituko da beste **2 urterako.** Datuak aldatzen ez badituzu, zure inskripzioari automatikoki baja emango zaio 2 urte horiek igarotzen direnean.

Etxebizitza babestuen sustapen berriak
Etxebizitza babestuen sustapen berri bat esleipen-prozedura batean sartzen denean, Nafarroako Gobernuaren etxebizitzaren web gunean kontsultatu ahal izango duzu, **Sustapenak atalean**.

NOLA PARTE HARTU ESLEIPEN BATEAN?

Parte hartzeko, Zentsuaren aplikazioan sartu eta interesatzen zaizkizun eta zure inskripziora egokitzen diren sustapenak aukeratu beharko dituzu.

Garrantzitsua da kontuan izatea aukeratu dituzun sustapenetako etxebizitzak bakarrik eskuratu ahal izango dituzula.

Gogoratu sustapenak hiru hilean behin argitaratzen direla: martxoaren 1ean, ekainaren 1ean, irailaren 1ean eta abenduaren 1ean.



NOLA ESLEITZEN DIRA BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK?

Esleipen-sistema etxebizitzaren erregimenaren araberakoa da.

Erosketa
Etxebizitzak baremoaren arabera esleitzen dira

Alokairua eta alokairu eskuragarria
Etxebizitzak zozketa bidez esleitzen dira

Bi kasuetan, eta sustapen bakoitzeko etxebizitza-kopuruaren arabera, erreserba bereziak ezarri ahal izango dira kolektibo jakin batzuentzat; hau da, desgaitasuna duten pertsonak, familia ugariak, genero-indarkeriaren biktimak, terrorismoaren biktimak, besteak beste. Erreserba berezi horiek baremoaren arabera esleituko dira.

Esleipenean, hautaketan adierazitako lehentasun-ordena hartuko da kontuan. Etxebizitzarik esleitzen ez badizute, hautatutako sustapen bakoitzeko itxaron-zerrenda espezifikoan sartuko zara.


GARRANTZITSUA
Alokairu eta alokairu eskuragarriko sustapenetan, erreserba berezia aukeratzen baduzu, ezin izango duzu erreserba orokorraren zozketan parte hartu.

NOLA FUNTZIONATZEN DU ZOZKETAK?

Erreserba orokorreko pertsonak talde ezberdinetan antolatzen dira, haien adinaren eta erroldatuta dauden udalerriaren arabera:

- → Pertsona gazteak (35 urtekoak edo gutxiagokoak) eta 60 urtekoak edo gehiagokoak, erroldatuak
- → Pertsona gazteak (35 urtekoak edo gutxiagokoak) eta 60 urtekoak edo gehiagokoak, erroldatuta ez daudenak
- → Erroldatutako gainerako pertsonak
- → Erroldatu gabeko gainerako pertsonak

Pertsona bakoitzak bere adinaren eta erroldatze-lekuaren arabera dagokion taldean bakarrik hartuko du parte, eta Zentsua-inskripzioan adierazitako logela-kopuruarekin bat datozen etxebizitzak soilik aukeratu ahal izango ditu.



NOLA KALKULATZEN DIRA NIRE INSKRIPZIOKO PUNTUAK?

Zentsua duzun posizioa zure egoera pertsonalaren eta etxebizitzaren arabera lortutako puntuazioaren araberakoa da, etxebizitza babestu bat eskuratu ahal izateko. Horri **baremoa** esaten zaio. Baremoa ez da berdina alokairuaren eta erosketaren kasuan (aurrezpen ekonomikoarengatik).

ETXEBIZITZA-PREMIA

Gehienez 55 puntu

EGOERA		PUNTUAK
A.	Eskatzaile eta ardurapeko adingabe bakoitzeko	7
B.	Etxebizitza desegokia edo egokitu gabea izatea	10
C.	Alokairuan bizitzea Alokairuko Sistema Publikoaren barruan (DaVid, EmanZipa...)	10
D.	Alokairuan bizitzea Sistema Publikotik kanpo	5
E.	Beste familia-unitate batekin bizitzea	2
F.	Lagatako, partekatutako edo kontraturik gabeko etxebizitza batean bizitzea	2

GARRANTZITSUA **B, C, D, E eta F ataletako puntuazioak ezin dira metatu.**

AZKEN HAMAR URTEETAN NAFARROAKO UDALERRI BATEAN ETENGABE ERROLDATUTA EGOTEA

Gehienez 8 puntu

ERROLDATZE-ANTZINATASUNA	PUNTUAK
4 urte baino gehiago	4
8 urte baino gehiago	8

GURASO BAKARREKO FAMILIA

Gehienez 7 puntu

EGOERA	PUNTUAK
Nafarroako guraso bakarreko familiaren titulartasun ofiziala indarrean izatea	7

AURREZPEN EKONOMIKOA

Gehienez 15 puntu. Erosketa-erregimenean bakarrik aplikatzen da

EGOERA	PUNTOS
Azken bost urteetako edozeinetan, aurrezki-kontu, kontu korronte, gordailu edo antzeko finantza-produktu baten titularra izatea, Dagokion urteko abenduaren 31n, 10.000 euroko edo gehiagoko saldoa izan beharko du horrek.	**3 puntu urte bakoitzeko**

GARRANTZITSUA
Bi inskripziok puntuazio bera badute, lehentasuna izango du familiaren diru sarrera haztatu gutxien duenak (BOEetan) edo diru sarrera haztatu gehien duenak (PTEetan).

GARRANTZITSUA
Etxebizitza bat esleitzen badizute, etxebizitzaren enpresa sustatzailea zurekin harremanetan jarriko da beharrezko dokumentazioa eskatzeko.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA (PERTSONA GUZTIENTZAT)

Ondorengoak aurkeztu beharko dituzu:

- → **Eskatzaileen NAN edo AIZ**
- → **Eskuragarri dagoen azken ekitaldiko errenta-ren aitorpen osoa (PFEZ)** edo familia-unitate osoaren datu fiskalak
- → **Erroldatze-txartela antzinatasunarekin,** duela hilabete baino gutxiago egindakoa, udalerrian alta emandako dataren xehetasun eta guzti.

GARRANTZITSUA
Ezkondutako edo izatezko bikotea bazarete, bion errenta-aitorpena aurkeztu beharko du-zue. Bikotea da Bikote egonkorren erregistro bakarrean aitortuta dagoena.



ERRESERBA BEREZIETARAKO DOKUMENTAZIOA

- → **%65eko edo hortik gorako desgaitasuna edo mugitzeko desgaitasun larria duten pertso-nak:** desgaitasun-ziurtagiria graduaren adiera-zpenarekin edo txartel urdina.
- → **Genero-indarkeriaren biktimak:** Nafarroako Berdintasunerako Institutuak emandako Egiaztapen-ebazpena
- → **Familia ugariak:** Ser titular de la acreditación de familia numerosa o tarjeta roja.
- → **Familias monoparentales:** Familia ugariaren akreditazioa edo txartel gorria izatea.
- → **Terrorismoaren biktimak:**GGobernu Ordezka-ritzak edo Nafarroako Gobernuak emandako ziurtagiria, urtebete baino gutxiagokoa.

EGOERA PERTSONALAREN ARABERAKO DOKUMENTAZIOA

SEME-ALABAK EDO ARDURAPEKO PERTSONAK BADITUZU

- → Familia-liburua edo jaiotza-agiriak
- → Familia berriz elkartzeko ebazpena
- → Ezkontzaz kanpoko seme-alaben gaineko neurriak
- → Bizikidetzaren udal-ziurtagiria

ETXEBIZITZA DESEGOKIA BADUZU

- → Etxebizitzaren eskriturak
- → Duela hilabete baino gutxiago emandako bizikidetza-ziurtagiria

ALOKAIRUAN BIZI BAZARA

- → Alokairu-kontratua, DaVid bisatua edo EmanZipa bisatua

BESTE PERTSONA BATZUEKIN BIZI BAZARA EDO ETXEBIZITZA PARTEKATZEN BADUZU

- → Bizikidetzaren agiria edo ziurtagiria, duela hilabete baino gutxiago emandakoa

10.000 €-KO EDO HORTIK GORAKO SALDOA DUEN AURREZKI-KONTU, KONTU KORRONTE, GORDAILU EDO ANTZEKO FINANTZA-PRODUKTU BATEN TITULARRA ZARELA ADIERAZI BADUZU

- → Banku-ziurtagiria, puntuatutako urte bakoitzeko abenduaren 31ko saldoarekin

FAMILIA-UNITATEKO NORBAITEK DESGAITASUNA BADU

- → **Nafarroako Gobernuak (ANADP) emandako** desgaitasun-ziurtagiria edo txartel urdina. Mendekotasun-ziurtagiriak ez dute egoera hori egiaztatzen

BANANTZE EDO DIBORTZIO KASUETAN

- → Beharrezkoa izango da epai judiziala aurkeztea eta, adingaberik izanez gero, hitzarmen erre-gulatzailea

